

## **EAEko Hezkuntza Sailaren inprobisazioa eta arduragabekeria, agerian berriz ere**

**Azken egunotan sindikatuok salatu bezala, ikasketa presentzialetara itzultzeko EAEko Hezkuntza Sailaren planaren atzean erabateko inprobisazioa eta arduragabekeria dagoela agerian geratu da gaur.**

Gaur bertan, Cristina Uriartek jakinarazi du klase presentzialen itzulera aste bete atzeratuko duela, hau da, data berri bat eman digu, maiatzaren 25a, alegia. Oraindik ez dugu ordea gure hezkuntza- komunitatearen osasuna bermatzeko hartuko diren neurrien berri. Zentzugabea iruditzen zaigu data zehatzak izatea eskoletara noiz bueltatzen garen baldintzatzen dutenak eta ez osasun eta segurtasun neurriak bete izanaren ziurtasuna.

Berriro eskatzen diogu Hezkuntza Sailari neurri horiek langileak ordezkatzeko ditugun sindikatuokin negoziatu eta hezkuntza komunitatearekin adostu ditzan. Oraingoan ere argi utzi du sailburuak errealitateetik kanpo dagoela. Zorionez, gure hezkuntza komunitate zentzudun eta indartsuak ozen esan dio sailburuari begi-bistakoa zena, maiatzaren 18rako ez direla betetzen langileak eta ikasleak ikastetxeetara segurtasun osoz itzuli ahal izateko baldintzak. Bide batez, ohartarazten diogu berdin gertatuko dela etorkizunean gurekin elkarlanean aritu ezean. Ondorioz, data finkatu beharrean, ikastetxera itzulera abian jartzeko lehendabizi elkarlanean hastea eskatzen diogu, soilik horrela bermatuko du langile, ikasle eta zabalkundez gizarte osoaren osasuna.

Zaila egiten zaigu Cristina Uriarte sinestea hezkuntza komunitatearengan tentsio gehiago ez jartzeko nahia argudio gisa erabiltzen duenean. Argi dago hezkuntza komunitate guztia aztoratu duen inprobisazio eta berme juridikorik gabeko erabaki baten ondorio direla gaurko gertakariak.

**Ikasketa presentzialetara osasuna bermatuz itzultzeko neurriak, protokoloak eta baldintzak negoziatzeko prozesu errealak abian jarri eta adosten ez diren bitartean, ikasketa presentzialik ezin dela egon berresten dugu sindikatuok.**



## **La improvisación y la irresponsabilidad del Departamento de Educación de la CAV de nuevo al descubierto**

**Como ya venimos denunciando los sindicatos en los últimos días, hoy se ha demostrado que el plan del Departamento de Educación de la CAV para volver a las clases presenciales era una absoluta irresponsabilidad, fruto de la improvisación.**

Hoy mismo, Cristina Uriarte ha anunciado que retrasará una semana el regreso de las clases presenciales, es decir, nos ha dado una nueva fecha, el 25 de mayo. Aunque todavía no tenemos conocimiento de las medidas que se van a adoptar para garantizar la salud de nuestra comunidad educativa. Nos parece absurdo que sean fechas concretas las que condicionen nuestra vuelta a las aulas y no la certeza de que se han cumplido las medidas de seguridad necesarias.

Reiteramos nuestra petición al Departamento de Educación para que negocie estas medidas con los sindicatos, quienes representamos a los trabajadores, así como para que las acuerde con la comunidad educativa. La consejera también ha dejado claro que está fuera de la realidad. Afortunadamente, la cordura y fuerza de nuestra comunidad educativa ha dicho en voz alta a la consejera lo que era evidente a todas luces, que para el 18 de mayo no se cumplen las condiciones para que plantilla y alumnado puedan volver a los centros con total seguridad. Aprovechamos la ocasión para advertirle de que lo mismo ocurrirá en el futuro si no colabora con nosotras. Por lo que en lugar de fijar la fecha, le sugerimos que comience a trabajar para poner en marcha la vuelta al centro, sólo así garantizará la salud de personas trabajadoras, alumnado y, por extensión, de la sociedad en su conjunto.

Nos resulta difícil creer a Cristina Uriarte cuando utiliza como argumento el deseo de no someter a más tensión a la comunidad educativa. Está claro que los hechos de hoy son fruto de la improvisación y de una toma de decisiones carente de garantías jurídicas, cuya consecuencia ha sido la de perturbar a toda la comunidad educativa.

**Los sindicatos reiteramos que si no se ponen en marcha procesos reales de negociación de medidas, protocolos y condiciones para la vuelta a las clases presenciales garantizando la salud, el personal no se incorporará a su puesto de trabajo**

